



INTER-IZATEA

— THICH NHAT HANH —

Testu honek Thich Nhat Hanh maisuak azaldu zuen "inter-izatearen" kontzeptua jasotzen du, naturaren eta izaki guztien arteko elkarren mendekotasuna azpimarratuz. Gure ekintzek ekosistema osoan duten eragina eta harreman hori elkarrekiko arduraz bizi behar dugula gogorarazten digu.

"Poeta bazara, argi ikusiko duzu hodei bat dabilela paper-orri honetan. Hodeirik gabe, ez da euririk izango; euririk gabe, zuhaitzak ez dira haziko; eta zuhaitzik gabe, ezingo dugu paperik egin. Beraz, paperaren existentziarako funtsezkoa da hodeia. Hodeia ez badago, papera ere ezin da egon. Hala, esan dezakegu hodeia eta papera *inter-direla*.

"*Inter-izan*" hitza oraindik ez dago hiztegian, baina *inter* aurrizkia eta *izan* aditza elkartuz, hitz berri bat sortzen dugu: *inter-izan*. Hodeirik gabe, ezin dugu paperik izan; beraz, esan daiteke hodeia eta paper-orria *inter-direla*.

Paper horri sakonago begiratzen badiogu, eguzkiaren argia ikusiko dugu bertan. Eguzkiaren argirik gabe, basoa ezin da hazi. Izan ere, ezerk ezin du hazi. Gu geu ere ezin gara hazi eguzkirik gabe. Horrela bada, badakigu eguzkia ere paper honetan dagoela. Papera eta eguzkia *inter-dira*.

Eta begiratzen jarraitzen badugu, paper hau egiteko zuhaitza moztu eta errotara ekarri zuen egurgilea ikus dezakegu. Eta garia ere ikusiko dugu. Badakigu egurgilea ezin dela bizi eguneroko ogirik gabe; beraz, ogi bihurtu zen garia ere paper honetan dago. Eta egurgilearen aita eta ama ere hor daude. Horrela begiratzen dugunean, ikusten dugu gauza horiek gabe paperezko orri hau ezin dela existitu.

Are sakonago begiratzuz gero, gu geu ere bertan gaudela ikusiko dugu. Ez da zaila hori ikustea, paper orri bati begiratzen diogunean gure pertzepzioaren parte baita. Zure burua hemen dago, eta nirea ere bai. Beraz,

esan dezakegu dena hemen dagoela paper honetan: denbora, espazioa, lurra, euria, lurreko mineralak, eguzkia, hodeia, ibaia, beroa... Guztia paper-orri honekin batera existitzen da. Horregatik uste dut *inter-izan* hitza hiztegian egon beharko lukeela. "*Izatea*" *inter-izatea* da.

Ezin zara zure kabuz izan; beste gauza guztiekin *inter-izan* behar duzu. Paper-orri hau da, gainerako guztia delako. Imaginatu elementuetako bat bere jatorrira itzultzen saiatzen garela. Demagun argia eguzkira itzultzen dugula. Paper-orri hau posible izango litzatekeela uste duzu? Ez, eguzki-argirik gabe ezin da ezer izan. Eta egurgilea bere amarengana itzuliko bagenu, ez genuke paperik izango.

Kontua da orri hau paperezkoak ez diren elementuez bakarrik eginda dagoela. Eta elementu horiek jatorrira itzultzen baditugu, ezin da paperik egon. Papera ez den elementurik gabe, hala nola adimena, egurgilea, eguzkiaren argia, ez da paperik izango. Hain mehea den arren, paper-orri honek unibertso osoa dauka barruan. Eta elementu horiek jatorrira itzultzen baditugu, ezin da paperik egon. Papera ez den elementurik gabe, hala nola adimena, egurgilea, eguzkiaren argia, ez da paperik izango. Hain mehea den arren, paper-orri honek unibertso osoa dauka barruan."

- Thich Nhat Hanh, *El Corazón de la Comprensión* (adaptazioa).
Itzulpena: Maïa Permaculture



"Paper-orri honek unibertso osoa dauka barruan."